



AKATSAK ETA ERDERAKADAK

- 1.— "Ni naiz INFRAKTOREA..." (EITB, 1989-XI-26'an) Zer ote da ori?
- 2.— "Sufragio unibertsala... Autaketa egin daiteke sufragio unibersalez". (EITB, 1989-XI-27'an).
- 3.— "Ezkerreko fronte anplioari eman diote baiezkoa". (EITB, 1989-XI-27'an).
- 4.— "Promozio publiko ta sustatze ofizialeko gauza" (EITB, 1989-XI-27'an)
"Sustatze" orrekin, sustotarako aiña ere ez dugu izango.
- 5.— "Egongo zara geldi?" (EITB, 1989-XII-1'ean) Euskeraz pentsatzen dakianak, onela esango luke: "Geldi egongo al zera?"
- 6.— "Telebista jarriko dut?" (EITB, 1989-XII-1'ean) Non jarri bear ote zuten, bada? Obeki zegokean onela: "Ikustirratia piztuko al dut?"
- 7.— "Metro bat eta 65 zentimetro neurtzen du". (EITB, 1989-XII-1'ean) Nork neurtzen du, eta zer neurtzen du? Obeki zitekean onela: "Metro bat eta 65 zentimetro ditu luzeran".
- 8.— "Sentitzen dut gertatu zaizunagatik". (EITB, 1989-XII-10'ean).
- 9.— "Bederatzi komisio lanean daude". (EITB, 1990-V-17'an) Aspertuko dira, orratik!, lanean "dauden" oiek lana egingo duten zai daudenak.
- 10.— "Txirindulariak indarrean dagoela PROBATU zuen". (EITB, 1990-VI-13'an)
"PROBATU" ondoren, zer? Goxoa ote zegoan?
- 11.— "Lanean egon zen bitartean, Loiola'n zen kongreso". (EITB, 1990-VI-13'an).
- 12.— "Enfrentamentuak egon dira ikasle ta polizien artean". (EITB, 1990-VI-13'an).
Talde bien artean EGOTEKO, zer ote dira ENFRENTAMENTU oiek?
- 13.— "Euri apurren bat egingo du". (EITB, 1990-IX-4'an) Ogiak eta antzekoek izaten dituzte APURRAK, baiña... euriak APURRIK izaten zuanik, sekulan ez dugu entzun.
- 14.— "Biar odei gutxi EGONGO da". (EITB, 1990-IX-5'ean)
- 15.— "Zortzi milla errekorritu ditu belauntziak". (EITB, 1990-IX-6'an).
- 16.— "Egokitze ekonomikoa egongo dela". (EITB, 1990-IX-12'an).
Ekonomi-egokitzea", esan ba'lute, gaitz-erdi! Ala ere, non EGONGO ote litzake?
- 17.— "Giro tensoa Unibersitatean". (EITB, 1990-IX-12'an) Ori bai dala, "euskerak ablatzeko material"

18.— "Pensoa ekartzea... Penso bezala ekartzea. (EITB, 1990-IX-12'an).

19.— "Eskola Bertsogintzarako ere laguntza ere eskatzen du...".

Eskola Kantagintzarako ere laguntza eskatzen du..." (Eusko Jaurlaritzza, HEZKUNTZA SAILA dalakoaren orrietatik artuak, oraintsu).

Alderantziz bear lukete, noski: Kantagintza Eskolarako, Bertsogintza eskolarako...

Eta orri beroietan onako beste arribitxi au:

20.— "Beraietako zuzendarien baimen ESPRESUA lortu behar da".

21.— "Gizona etorri BEAR DA... Emaztea joan BEAR DA..." Aditza "intransitibo" danean, joan, etorri, erori, ibilli... BEAR DA, erabilli bear ornen. Eta au Irakaskintzako liburu batetik artua da.

Gaztañaga'tar Jesus'ek

Akats geiago

Eskerrikasko zure ikustia. (Gracias por su visita).

(Gasteiz'en Postas kaleko Berebiltokiaren sarreran).

Edesti Erdirako Udal Sailla. (Departamento del Centro Histórico).

(Gasteiz'en, Postas kalean. Plaza-Berriruntzko sarreran).

Unibertsitate Kanpua. (Campus Universitario).

(Filosofi eta Elerti Ikastetxearen alboan).

Laudioko Abertzaleen Egundialdiak lenengo. (1^{as} Jornadas nacionalistas de Llodio).

Santa Maria benetako eliza. (Iglesia de Santa María la Real. Zarautz).

Eguraldia arrazoia ematen digu. (El tiempo nos da la razón).

(Ikusirratian, Zanussi'ren iragarkia).

